

ZENBAT BURU
Arnaitz Gorriti

ERREPORTAJEA
Elgoiborko iturriak

GEHIGARRIA
KiliBAREN

UDAL1TXETIK
UdalarWl eta
Elgotlkt123rnen
arteko hitzarmena

KIROLA
Eigoibarko -
Mendi Itzulla
domekan izango da

BARREN

2000ko maiatzaren 19a
VIII. urtea - 321. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



**Iturrien garrantzia
lehen eta orain**

"Iturri txikiak handiak beste kentzen du egarria" (Esaera zaharra)

ELGOIBARKO KIRIA PATRONATUA

Amaia Zubiria

KULTUR ERROTA

GWR

Barixakua

[t 23:00efon

LE

LTXE Taberna



ELGOIBARKO KIRIA PATRONATUA

650m²ko instalakuntza zure zerbitzura



Muskulazio Gela
EntrEnamEndu personalak



656200

Kardio ArEtoa
BizikiEta bErriak
Arraunak
Korrika EgitEko zinta
StEpEr



20.000

Aerobic ArEtoa
AErobic-a
StEp-a
Zirkuituak
Tonifikazioa



Tel. 848 74 44 15

Matrikularik gabe

PREZIOA: ABONATUAK 2.000ptalhilean • EZ ABONATUAK: 2.900pta./hilean



ARNAITZ GORRITI

Atal hau ez da BARENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Zenbaki izatea

pertsona normalen arazo normalak ez dira normalean albiste izan ohi. Pertsona normalok gure arazo normalei aurre egiten diegu albiste izateko nahi itsuegirik gabe. Hala ere, batzuetan albistek pertsona normalongana hurbiltzen zaizkigu, guk uste baino gehiago eta baita nahi baino gehiagotan ere. Lan istripuei buruz ari naiz.

Pertsona normalak pertsona jaiotzen, bizitzen eta hiltzen dira; pertsona normala izateak dakartzan abantailekin eta eragozpenekin. Eragozpen handienetako bat, normalenetako bat, zoritxarrez, zenbaki izatea da. Langileak, pertsona normalak, enpresei kostako zaien proportzioan kontratatzen dira; langilearen baliorearen arabera, langilearen fideltasunaren arabera, langilearen jakintzaren arabera. Horren truke, dirutan, oporretan eta, oro har, bere bizitzan erabiliko duen zenbaki kopuru bat ematen zaio langileari eta lan egiten duen enpresak, berriz, teoriarik behintzat, aurrera darrai. Eta kittol Ez dago beste misteriorik.

Bestalde, langileak langile moduan tratatzen dira gehienetan eta ez pertsona normal moduan. Helburu nagusia etekinak

ateratzea izaki, nori axola zaio langileak zein modutan diharduten lanean? Lan istripuen aurka hartu beharreko neurriak beti dira beharrezkoak eta beti gutxiegi, pertsonen bizitza baitago jokuan kasu askotan. Baina ikusten denez enpresariak ez dute derrigorrezkoa dena baino xentimo gehiago gastatu nahi, nahiz eta ez dirurik galdu, gutxiago ez irabaztearren. Langileak gastuak dira, agian enpresariak ere gastuak izan daitezke. Langileak pertsona normal izateari utzi eta enpresarentzat lan egiten duten makina bihurtzen dira. Zenbaki bihurtzen dira.


Esate baterako, zer gertatuko litzateke Gipuzkoako ahaldu nagusia obra batzuetara joan eta lan istripu baten erruz hilko balitz? Ostera, enpresariei zenbaki

bizigabeen osasunak buruko min handiagoa ematen die zenbaki bizidunen, hots, pertsona normalen osasunak baino.

Ia astero pertsona bat edo gehiago lan istripuz hiltzen ari dela jakitea froga garbia da. Enpresariak ongi jakin behar lukete langileak pertsona moduan tratatzea ez dela negozio kontua bakarrik, baita gizalege kontua ere. Eta zenbakien bizitza luzatzeko gizakiena ebaki behar bada, agian merezi du zenbakien eutanasia noizean behin praktikatzea.


"Zenbakien bizitza luzatzeko gizakiena ebaki behar bada agian merezi du zenbakien eutanasia noizean behin praktikatzea"

Birrak eta Barreak



CKW0E 2000M\$1 02

BaRREN



Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

171 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Eli Aizpuru
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idera Arozena, Altzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larratiaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Ifligo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrariaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	55-1.038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Forii
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



*gizarte-ekintza
obra social*

44 DANOBAT

411 GOITI
GRUPO DANOBAT

Txarangaren azalana

Elgoibartar askok jakingo duzun bezala, Mauxitxa Txaranga Mintxetako futbol zelaian izan zen orain dela bi aste (2000-05-06). Bertan izateko arrazoi bakarra, "Haundi" animatzea zen, zaletu batzuen eskakizunari erantzunez. Zoritxarrez ezin izan zuten irabazi eta datorren urtean 'Regional Preferente' mailan ikusi beharko dugu gure ordezkariarik adierazgarriena.

Baina ez da hori txaranga argitu nahi duena. Bi aste hauetan zehar hainbat esames entzun ditugu kalean. Esames hauek txaranga 'F.O Elgoibar'eko parte diren pertsona batzuen aurkako abestiak kantatu eta jo zituela diote, eta hori ez da egia. Txaranga, zaletuekin batera, taldea animatzera joan zen Mintxetara. Eta hori da egin zuena, ondo edo gaizki, norberaren iritzia arabera, baina borondate osoz.

Egia da zaletu batzuek hitz eta abesti kritikoagoak plazaratu zituztela, baita txaranga kide gutxi batzuk ere. Agian, beraiei animatzen laguntzeko eskatu zigutenekin bat egitearren, edo agian, beste ikusle batzuk bezala, beren iritzia plazaratzearen. Norberak jakingo du zergatik. Baina txaranga ez du alde baterako ez besterako iritzirik azaldu, ezta azalduko ere, eta ez litzaiguke gustatuko horrelakorik berriz entzutea. Ez dugu uste honelako gaizkiulertu batek Mauxitxa Txarangaren izen ona zalantzan jartzea merezi duenik.

Besterik gabe, dena argi dagoelakoan eta hurrengoan aitzakia alaiago batekin elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen gara.

Mauxitxa txaranga

Isanlor -aldearen eskerrak

Espainiako Jubenil Nesken Txapelketa amaitu ostean, lerro hauen bidez Elgoibarko 'Sanlo' E.K.T-k jaso duen harreragatik, bai parte hartu zuten taldeen aldetik, bai epaiIe-taldearen aldetik eta baita jendearen berotasunagatik ere, gure eskerrik beroenak agertu nahi dizkiegu:

.Ekitaldian parte hartu zuten Era-kunde Ofizialei.

.Antolaketa Iagundu duten dendei.

.Prentsari, bertakoari batez ere.

.Gurutze Gorriari.

.Haritz taldeari.

• Taldeko jokalarien gurasoei.

. Taldeko jokalariei.

.Jokatu diren partidu guztietan kiroldegia bete duen ikuslegoari.

.Elgoibarko Udaleko Kirol Patronatuari eta bereziki, bere zuzendaria den Ramon Mugika jaunari.

.Sprilur' S.A.ri.

▪ 'Uneeta' S.A.ri.

.Eta nola ez, 'Uneeta Elgoibar' talde jubenilari, Txapelketa honetako azken fasera iritsi eta lortutako arrakastagatik.

Denon artean, Elgoibar bere jator-tasunagatik, buru-belarri aritzeagatik eta laguntzeko prest egoteagatik eza-gunago izatea lortu dugu.

Zorionak guztioi!

Elgoibarko 'Sanlo' E.K.T

C.D. Elgoibar

D. Elgoibarko Jubenil futbol taldeko guraso bat naiz. Denboraldi honetan asteburu txarrak pasatu ditugu elkarrekin, baina baita zoragarriak ere. Denak oso aberasgarriak izan dira.

Datorren denboraldian ezin izango dugu denok elkarrekin egon; batzuk jubeniletan jarraituko dutelako, beste batzuk regionalera igoko direlako, eta agian, bat edo beste "Haundi"ra. Edozer dela ere, jarraitzen duzuen bidean zorterik onena opa dizuet eta gauza bat eskatzen dizuet, " ez aldatu, mesedez".

C.E

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK atalelan adierazilakoan eranzukizunik. Eskutitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.



©1111111



- Herritar hatek baserrietako buzoiak konpontzeko ardura nork duen jakin nahi du. "Euria dagoenean gutun guztiak busti egiten dira. Nori dagoio arazo hau konpontzea?"

Galderaren erantzunaren bila udaletxera jo dugu eta bertako Nekazaritza Zinegotziak honako hau esan digu: "Konpontzeko asmoa baino, berriak ipintzeko proiektua dago. Buzoiak eskatuta daude eta udarako buzoi berriak izango dituzte baserrietan".



KEXAK

- Mutiko batek igande goizetan Madalako Parkea oso zikina egon ohi dela-eta, honako kexa hau helarazi digu: "Igande goizetan lagunekin jolastera hurbilduz gero, denetarik aurkitzen dugu hertan, edalontziak, kristalak, paperak...jasanezina da!"

- Bizilagun bat Urasandiko sarreran dagoen putzu batez kexatzera etorri zaigu. "Estali bazuten ere, hau ez da irtenbidea izan, berriro putzua sortzen delako. Bertatik igaro ohi diren moto gidariak erortzeko arrisku handia daukate eta, horrela gertatuz gero, beste aldetik etor litekeen autoreen batek harrapatzeko arriskua dago. Menditik ur asko datorrenez, es-toldak egitea izan daiteke irtenbidea".

- Emakume batek honako kexa hau adierazi nahi du. "Plaza Txikian, obrak dirrela eta, bidoi bat ipini dute, eta jendeak zakar ontzi bezala erabili duenez, ikaragarritzko usaina dario. Norbaitek zerbait egin behar duela uste dut".



1111111X

- Ikastolako DBHko ikasle guztiak 'Uneeta Elgoibar' Eskubaloi taldea txalotu nahi du, Espainiako Txapelketan egin duten ahaleginagatik.

- Elgoibarko 'Galiza Etxeko' zuzendaritzak 'Sernana das Letras Galegas' ospatzea posible egin duten erakunde eta partikular guztiak zoriondu nahi ditu.

BAI, ESAN?



110001011W

Josu Gorritxategi

IMSkO gerentea

Euskal Autonomia Erkidegoan egindako azterketa baten arabera, enpresen %36ak ez ditu beharrezkotzat hartzen kalitate agiriak eta ez daukate ISO 9000 agiria bereganatzeko asmorik. Guk Elgoibarko 'IMS Kontsultoreak' enpresara jo dugu bertako gerentea den Josu Gorritxategirekin hitz egitera, eta gai honen inguruan argibide hauek eman dizkigu.

- Zer da ISO 9000? Erakunde edo enpresa batek ekoizten eta merkaturatzen dituen produktuen kalitatea bermatzeko arau internazionala da. Hasieran manufaktura enpresentzat sortu zen, baina piskanaka zerhitzu enpresetara zabaldu da, hala nola hezkuntza zentruetara, osasun etxeetara... Arau horiek betez gero kalitate sistema baten aurrean egongo ginateteke eta hori akreditatutako erakunde batek ematen duen agiri hatek ziurtatzen du.

- Agiri hori lortzeko arauak oso zorrotzak al dira? Ez dira oso zorrotzak. Enpresan gauzak nork, nola eta zergatik egiten dituen aztertu behar da; eskaria jasotzen denetik produktua edo zerbitzua eskaini arte. Horrek lana zuzen eta zorrotz egitea eskatzen du.

- Euskal enpresen %36ak ez du interesik agiri hauek lortzeko. Zer dela eta? - Enpresek uste dute sistema edo agiri honek ez diela inolal«) balio erantsirik emango eta berriak egiten dutenaren kalitatea ziurtatzeko ez dutela horrelakorik behar. Honetan zentratuz gero, beraien lanean garrantzitsuagoak diren beste alor batzuk alboratu lagako dituztela uste dute enpresa zuzendariek.

- Elgoibarko enpresak kontzientziatuta al daude gai honi dagokionez? - Kalitate sistema jartzen hasi ziren lehenak automozio enpresak izan ziren. Makina Erremintara eta Industria Auxiliarrera beranduago iritsi zen. Hala ere, azken 6 edo 8 urte hauetan aurrerapenak nabarmenak izan dira, eta enpresa askok lortu du kalitatea ziurtatzen duen agiria eskuratzea.

- Zein onura izan dezake enpresa batentzat horrelako agiri bat eskuratzeak? - Enpresa bera hobeto ezagutuko dute langileek eta buruek, antolaketa hobea izango da, prozesuak hobetuko dituzte eta etikaziarik eza gutxituko da. Gainera, agiri horrekin kalitate arauak betetzen dituen enpresa dela esan ahal izango du edonon.

Iturri e^{1/1} garr

Urak berebiziko garrantzia du gizakiarentzat. Historian zehar zibilizazio guztiak saiatu dira baliabide preziatu hau mendean hartzen. Ura ez da baliabide natural agortezina ordea, eta urik ez daukaten herrialdeetan urrearen pareko balioa du. Gure kasuan, erruz egiten du euria Euskal Herrian, eta soberan daukagu. Hori dela-eta,

ez dugu behar beste aintzat hartzen likido preziatu hau. Iturriek betidanik izan chae lotura zuzena urarekin. Duela gutxira arte kaleetako iturriak ziren herritarrentzat edateko ura lortzeko modu bakarra. Ur korronea etxeetara ailegatzeko ez zen garaietan elgoibartarren bizimoduan paper garrantzitsua betetzen zuten iturriek.

Duela 650 urte lehen elgoibartarrak Karakate mendia magaletan eta Deba ibaiaren ertzean finkatu zirenean, ura eskura izateko aukerari lehentasuna eman zioten. Herrien kokagunea ez zen kasualitatez erabakitzen, ur baliabideen arabera baizik. Berdin gertatzen zen baserriekin ere, ur iturburu ondoan eraikitzen baitzituzten baserriak.

arlaufetan garbitzen zituzten arropak elgoibartarrek. "Sallobente" errekak eta "Deba" ibaiak bat egiten zuten lekuart, adibidez, bat zegoen, baita Plaza Handia dagoen inguruan eta Santa Klaran ere. Lehen garbitegi publikoak edo uhaskak, berriaz, XX. mende hasieran eraiki zituzten. Elgoibartarak bertara joaten ziren arropak garbitzera".

Kaleko iturrien garrantzia

Urak berebiziko garrantzia izan du lehen eta orain. Dena den, ur konontea ez zen etxeetaraino ailegatu XIX. mende bukaerara arte. Hori dela eta, kaleko iturri publikoetatik hartzen zuten etxean erabiltzen zuten ura. Gaur egun, egarria dugunean ura edateko besterik ez ditugu erabiltzen, baina lehen etxeetako ur hornidura bakarra ziren. Hala ere, higiene pertsonala eta arropa garbiketa etxetik kanpora egiten ziren. Peilo Arrieta historialariak eman dizkigu iturrien eta uraren garrantziari buruzko hainbat azalpen, "XIV. mendetik XIX. mende bukaerara bitartean ibai ertzean jartzen zituzten

Iturri zaharrenak

Pellok azaldu digunez, "aintzinako Elgoibartarrek 2 kale, Kalegoen eta Kalebarren, eta bi plaza zituen. Hirugarren kalea XVI. mendean eraiki zuten. San Frantzisko de Arrabal izeneko konbentua zegoen Plaza Txiki inguruan eta Arrabal izena jani zioten kaleari, gero San Frantzisko izena hartu zuen arren. Santa Klarako konbentua ere XVI. mendekoa da". Kale erdian eraiki zuten lehenengotariko iturria Kalebarrenen (gaur egun Nafarroa Plaza dagoen tokian) zegoela esan digu, San Frantzisko iturria dagoen lekua baino goraxeago. "San Rokeitik behera jaisten zen 'Antzarsoroeta' erre-kastotik hartzen zituen urak iturri hark".

Altzolan dagoen iturria 1643. urtekoa da, eta

ELGOIBARKO URAREN KALITATEA eta ZENBAIT DATU

*(Celestino Rovira Udaleko iturginak emandako argibideak)

►URAREN KALITATEA:

Elgoiharko ura kalitate aldetik oso ona da egindako analisien anthera.

►OSAKIDETZAREN ANALISIAK:

15 egunean behin Elgoibarren eta egunero Mendaron.

KLOROA:

Edaten dugun urak % 0'6 du. (0'2 eta 0'8 bitartekoa behar du Kloroak bakteriak eta germenak akabatzen ditu.

URAREN IBILBIDEA:

Kilimoi-Kakatza (4000m³ ko depositoa). -Beste depositoa- Deposito txikiak

ELGOIBARKO DEPOSTTOAK:

Agarre 500 m³, Urtia 500 m³, Salaburu 400 m³, Sigma 200 m³, Altzola 400nv eta Arriaga 600 m³.

EGUNEROKO UR KONTSUMOA: Batezbeste 2.700 tn³ ur edaten dugu egunean eigoihartatrok.

Itzia lehen eta Orain

Madalakoa 1883koa. Santa Klaran, beniz, "Aitzgorri" izeneko iturria zegoen (Zubiaurre aroztegia dagoen inguruan). Azkenik, Plaza Handian dagoen iturria XVIII. mendekoa da. Pellok aipatu digunaren arabera, herriko iturriei garrantzi handia eman zaie beti, "arkitektoak eta agintariak beti saiatu dira iturriak nabarmentzen. Horretarako dekorazio berezia erabili izan- dute".

Osasunarenf/ at urnesedegarriak

Iturririk entzutetsuenak auzo eta baserri inguruetaoak ziren. "Jendeak bazekien zenbait iturritako urak osasunarentzat onuragarriak zirela. Elgoibarren metal-ur iturburu ugari daude edo izan dira: Apraizen, Altzolabean, Erreizagan, Kaskanten (San Migel bailaran), Artetxen, Goenagan (San Roke bailaran), Andikanon... 1853. urtean Rubio sendagileak aipatu zituen lehen aldiz ur hauen onurak. Gaixoei metal-ur hauek edateko gomendioak luzatzen zizkieten garaiko sendagileek, osagarriak eta lagungarriak baitziren". Dena den, ur osasuntsuetaz hitz egiten hasiz gero, ezin ahaztu Altzolako urberoak. "Francisco Planzon, Elgoibarko sendagileak idatzi bat aurkeztu zion Udalari 1775. urtean. Idatzian, Altzolako zubiaren beste aldean eta etxe baten azpitik, buru bero bat irteten zela adierazi zuen. Bertako ura hainbat gaixotasun sendatzeko rnesedegarria zela argitu zuen, eta baita Zestoako bainuetxeko urak beste-ko kalitatea zuela frogatu ere. Urte batzuk beranduago, Pedro Manuel Atristain, alkate ohiak, Altzolako urak ofizialki erregistratu zituen bere izenean. Bainuetxea 1846an inauguratu zuten". Altzolakoaz gain, izan da beste urberorik Elgoibarren. Pellok esan digunez Urruzuno bailaran zegoen eta Iturriberoaga" izenez ezaguna zen. "Elgoibartarak marmitak hartuta joaten ziren iturri hauegara". Gaur egun ez dago aintzina-ko ur premiarik, baina badago oraindik ere metal uraren bila joaten denik.



ALTZOLAKO ITURRIA

Noizkoa: 1643. urtekoa

Kokapena: Altzolako zubiaren eta "Zelaia" hotela izandakoaren aurrean, eta "Txoriko" etxearen hormaren azpiko aldean dago.

Zenbait datu: Metal-ura ematen ari da etengabe 10-14"tako hotz beroan. Neguan epel sentsazioa eta udan hotzarena hartzen da edaterakoan. Bainuetxeko ur beroa bezain ospetsua ez bada ere, hura baino lehenago ezagutu eta cdaten zen Altzolan. Haurrak arduratu izan dira pitxarretan edo marmitetan altzolatarraren etxera bertako ura eramateaz.

AROSTEGIKO ITURRIA

Noizkoa: 1847. urtekoa

Kokapena: Sallobente auzoan. 'Sallobente' errekaen ezker aldean. Arostegi jauregiaren aurreko aldean.

Zenbait datu: Francisco Antonio Arostegik, Alkate ohiak, eraiki zuen iturri hau 1847. urtean. Iturburutik iturriaraino ura bi metro lur azpitik doa, 12"tako tenperatura mantenduz neguan zein udan. Elgoibarren dugun iturri ederrenetakoa da, ur kalitate, ur emari zein arkitekturari dagokionez.



MADALAKO ITURRIA

Noizkoa: 1883. urtekoa

Kokapena:

Madalan. Itiondo' tabemako honnaren kontra.

Zenbait datu: Kararriz egindako eraikin neoklasiko txiki honek hirurogeiko hamarkacian bizi izan zituen momenturik onenak. Erreminta-makinaren garapen handiaren garai hartan, lan egunetan goizeko zortzietan eta arratsaldeko ordu bata eta erdietan, iturriaren aurrean inguruko tailerretako pintxeek ilara gordetzen zuten euren mannitak Upaitza inguruko ur freskoaz betetzeko. Geroago iritsi zen uraren krisia, pintxeak desagertu ziren eta *Coca-Colak* hartu zuen uraren lekua.

LAN BANAKETA HOBE BATEN AIDKO SESITSIBIIF/_ABO
KANPAINA HASI DA.

Ordu estrak gutxituz gero langabeziak behera egingo al du?



FERNANDO DEL REY

68 urte, jubilatua

Hori lanaren arabera da. Lan asko dawenean ordu estrak sartu behar dira, ezin haita esperientziarik gabeko jendea hartu. Baina denon artean gauzak hobetu ditzakegu.



IVP DOLORES ASTISARRAGA

61 urte, etxeoandrea

Igual bai. Nik ez dot lanik ein eta ez dakitx. Hala ere, pentsatzen dot beste soluzio posible batzuen artian ordu estrak gutxitzia ona izan leikela.



AMED ADOZI

34 urte, soldadorea


Baietz uste dut. Ordu estrak sartzen dituen jendea ezagutzen dut eta hauek hainbeste ordu egingo ez balituzte lanpostu gehiago sortuko lirateke.



AURORA ALVAREZ

39 urte, etxeoandrea

Zaila da ordu estrak gutxitzea. Jendea soldataz gain, ordu estren irabaziak jasotzera ohituta dago-eta. Baina orduak gutxituz gero lanpostu berriak sortuko lirateke.



JON RODRIGUEZ

20 urte, ikaslea

Bai. Jendiak ordu estrak sartzia gaizki iruditzen jata. Lanpostuak sortzeko irtenbidia izan leike ordu estrak gutxitzia. Igual oindiok ikasten nabilelako izango da.



MARIA LUISA ARRIOLA

37 urte, irakaslea

Suposatzen dot baietz. Lanian daudenek ordu guztiak hartzen badituzte, banatzeko ez dao ordurikan. Beste toki batzutan ein badabe hemen ere posible izango da.

Ocit

G51-390

40111(11 ID,LW

Enpanadak

Enbutidook

Baserriko ogia

Bolleria

S = Bartolome, 61 B. Ezenarro, 1 w 943 74 3399

ca² cylmo

afti DEBA

191-1 GARAIA

INMUEBLE AGENTZIA

LIBURUDENDA

funtzionamenduan

saldu

edo eskualdatzen da

Elgoibarko herrigunean

Errosario, 34-1 ezk. Tel: 943 74 42 83 • Faxa: 943 74 42 53

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

90;44 elall« 444,141 4~4 tene1.44 **16 leteetelipt.**



5369pv-j

ARRAÑAGA

A T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11

ISPILU ALL BEGIRA



Juan Miguel Abal

HARLIBI jatexekoa

- Bazkaltzeko ura ala ardoa? - Ura nahiago dut.
- Sukaldea ala jangela? - Jangela, jarri eta jateko.
- Ezkontzak, bataioak ala jaunartzeak nahiago?
- Ezkontzak, jende gehiago ezagutzen baita ezkontzetan.
- Nor gonbidatuko zenuke zure jatetxean afaltzera?
Nire gurasoak, aitagarreba eta amagarreba.
- Jantokirako musika bat? - Dantzarako musika.
- Non eraikiko zenuke harrizko zubi bat?
- Jantoki batean, apaingarri modua.
Etxeko espezialitatea? - Legatza ondarrutar erara.
- Sekula probatuko ez zenukeen janaririk ba al da?
Bai, porruak edo porrusalda.
- Afari on batekin konkistatu al daiteke emakume bat?
- Bai, konkista daiteke.
- Saltsa guztietako perejila al zara?
- Ez, nahiko pertsona lasaia naiz.
Inaiz eskatu dizuten janaririk arraroena?
- Gauza arraro asko eskatu dizkidate, baina bat esatekotan,
txirlak patatekin.
- Eta zuk probatu duzuna? Duela egun gutxi perretxiko
batzuk jan nituen, sekula probatu gabe neuzkan.
- Zeinen aurpegia ikusi nahi zenuke barraren beste al-
dean? Juan Pardorena, abeslari bezala asko gustatzen zait.
Nongo gastronomia duzu gustukoena?
- Hemengoa, Euskal Herrikoa.
- Harreman sendo bat mantentzeko errezeta?
- Ongi konpontzea eta elkar maitatzea.
- Euskal sukaldari bat? - Aitor Belaustegi edo Cristian
Alonso, biak ezagutu ditut eta oso onak dira lanean.
- Lagun arteko bazkaria ala bikotearekin afari erro-
mantikoa? - Afari intimo bat bikotearekin.
- Mundu honetan zer ikusten duzu txipiroien tinta be-
zain beltza? - Jendearen arteko harremanak. Gaizki kon-
pontzen gara eta gauzak konplikatzen ditugu. Gauzak hitz
eginez konpon daitezke gure gizartean.
- Inoiz jarri al zara langostinoak plantxan bezain gorri?
Batzutan lotsatzen naiz, baina segituan pasatzen zait.

Gau sentipenak

GAUA TALDEA

Jon Eugi

poemak

Alberto Gonzalez

gitarra eta pianoa

ANTOLATZAILEAK

URRUZUNO

Literatur Taldea

ELGOIBARKOIZARRA



Malatzak 21, domeka • gamoko 22:00etan • TOLETIE tabernan

• **Udal Euskaltegien udako barnetegia**

Urtero ohi duten bezala, aurtengorako ere Gipuzkoako Udal Euskaltegiek udako barnetegia antolatu dute. Barnetegiaren helburua, ikasleek euskaltegie-tan lortutako maila edo urratsa finkatzea da. Uztailaren letik 15era bitartean izango da Zerainen, eta izena etnateko epea maiatzaren 26ra arte izango da zabalik. Prezioa 38.000 pezetakoa da eta joaten direnek Udalaren diru-laguntza jasoko dute. Euskaltegiko ikasleek lehentasuna izango dute eta gainontze-koak lekua balego soilik joan ahal izango dira.

• **San Pedroko zelaia zaintzeko lan-kontratua**

Elgoibarko Udalak aditzera eman nahi du San Pedroko zelaia zaintzeko pertsona bat kontratatuko duela. Lan hitzarmena udarako izango da eta eskaerak udaletxean bertan aurkeztu beharko dira maiatzaren 24a baino lehent.

• **San Bartolome jaietan txosnak larneko eskariak**

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak, aurtengo San Bartolome jaietan txosnak jarri nahi dituzten taldeei jakinarazi nahi die, ekainaren 9an amaituko dela eskaerak aurkezteko epea. Eskaerak honako datu hauek izan beharko ditu: Erakundearen izena, arduradunaren izen-abizenak eta NAN zenbakia, txosnaren kokalekua eta noiztik nora jarri nahi den. Eskaerak Kultura Zerbitzuan aurkeztu behar dira, goizez, edo bertako buzoian ere laga ahal izango dira.

Eigolbarren krematorlea jarlezko proiektua aurkeztu du Bilboke funeraria batek

Inguruan, Donostialdean eta Derion bakarrik daude horrelako labeak

Olasope industrialdeko pabiloi batean enausketa-labe bat jartzeko proiektua aurkeztu du Funeraria Bilbaina S A enpresa bilbotarrak. Aurrez, 1999an Hiri-gintza Sailak baiezkua eman zion, eta ondorioz, aurrera jarritzea erabaki zuten. Asmoa, Olasope industrialdeko pabiloi bat berritu eta bertan labea kokatzea da, Sigmako lantegi zaharra zegoen lekuan, hain zuzen ere. Hala ere, RAMINP erreglamendua tramitatu behar dute lanak hasi aurretik. Erreglamendu honek traba egiten duten aktibitateak eta ekintza kaltegarriak arautzen ditu. Beraz, baiezkua jaso gero Iaster hasiko lirateke krematorioa egiteko lanak, eta gutxi barru, Elgoibarko gorpuzalc errausteko labea izango genuke. Inguruan, Donostialdean eta Derion baino ez daude mota honetako labeak. Honela bada, errausketa-labearekin, Olasoko hilerria handitzearekin eta Santa Klaran



Sigmako lantegi zaharraren eraikinetan jarriko dute errausketa-labea.

eraikitzen ari diren tanatorioarekin aurrerapen asko izango genituzke alor honetan. "Proiektu honekin Elgoibarrek XXI. mendean aurrera egingo du. Gainera, kontuan hartu behar da labea hileritik oso gertu egongo dela eta inguruan aparkatzeko leku nahikoa dagoela", adierazi zuen Gillermo Garate alkateak.

Josu Jon Imaz Gestio Eskolan izan zen karrera amaierako proiektuen aurkezpenean

Gestioak enpresaren alorrean duen garrantzia azpimarratu zuen

Josu Jon Imaz, Eusko Jaurlaritzako Industria, Komertzio eta Turismo Sailburua, Gestio Eskolan izan zen joan den ostegunean, hilaren 11n. Gestio Eskolako 4. promozioiko ikasleek karrera amaierako proiektuen defentsa egin zuten. Era honetako aurkezpenekin enpresen gestioko heziketa maila neurtu nahi da. Lehenengo hainbat ikaslek "Harri-lur" enpresa proiektua aurkeztu zuten. Proiektua aurrera ateraz gero, enpresa horretan injineroei, arkitektoei eta kontsultoreei aholkularitza eskainiko tzaieke. Aurkezpenaren ondoren, Alfonso Vazquez enpresen gestioan eta aholkularitza arloan izen handia duen kontsultorea hartu zuen hitza "Mende berrian erakundearen kontzeptu berri baten bila" hitzaldia eslcainiz. Ekitaldia Josu Jon Imazen hitzekin amaitu



zen. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuak gestioak enpresaren alorrean duen garrantzia izan zuen mintzagai. "Gure helburua enpresei laguntzea da, batez ere, ezagutza, kalitate eta kooperazio alorretan", adierazi zuen Imazek.



ur
N

75 umek egin zuten Lehen Jaunartzea domekan, malatzak 14, Parrokian

Argazkietan agertzen diren 75 neska-mutilek joan den domekan, maiatzaren 14an, Lehen Jaunartzea egin zuten Parrokian. Bi meza izan ziren, 11:00etan bata, eta 12:30ean bestea. Umeak 3 urtez egon dira Jaunartzea prestatzen eta nahi dutenek beste hiru urtetan jarraitu ahal izango dute kristau-ikasbidean. Igandeko ospakizunak bide emango die haurrei hemendik aurrera gaintzeko eliztarrekin iganderoko mezatan Jauna hartzeko.



Presoen eskubideak aldarrikatu zituzten hilaren 13an, amnistiaren aldeko martxan

Joan den larunbatean, hilaren 13an, amnistiaren aldeko martxa pasatu zen Elgoibartik. Eguerdian, Mutrikutik zetorren jendeari San Antolinen ongi-etorria egin ondoren, Plazan "Amnistia osoa, euskal presoak Euskal Herrira" lelopean ekitaldi berezia egin zuten. B. azkaria Madalako parkean egin eta gero, arratsaldeko 19:30ean manifestazioa izan zen "Presoak gose greban amnistia osoa" lelopean. Martxa honen helburua presoen eskubideak aldarrikatzea da.



Asier Astarloa eta Ander Leon Liburutegiko Idazlan eta Marrazki Lehiaketako irabazleak

Joan den ostegunean, hilaren 11n, banatu zituzten Liburutegiko VI. Idazlan eta Marrazki Lehiaketako sariak. Idazlanen atalean Asier Astarloa izan zen lehenengoa, Ion Ander Cerron bigarrena eta Antton Alherdik aipamen berezia jaso zuen. ManuzIdei dagokionez, lehen saria Ander Leonek eskuratu zuen, bigarrena Ane Elorzak eta bi aipamen berezi izan ziren Lorea Lozanorentzat bata eta Itsaso Egañarentzat bestea. Aurten, guztira 373 lan aurkeztu dituzte; 239 marrazki eta 134 idazlan. Sari banaketara haur eta gaztetxo ugari hurbildu ziren eta amaieran gozokiak banatu zituzten.

• Jaietako programaren azala aukeratzeko lehlaketa

Udaleko Kultura Batzordeak 2000. urteko San Bartolome jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Edozeinek har dezake parte eta teknika librea izango da. Neurria, berriz, A2 edo proportzionala. Diapositiba aurkeztuz gero, bere neurria mantenduko da. Lanetan "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2000" testua agertu beharko da. Lanak ekainaren 16ko eguerdiko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Kultur Ebtean. Egilearen sinadurarik ez dute izango eta lanaren atzealdean lema jarri beharko da. Sobre itxi batean, berriz, egilearen datu pertsonalak eta N.A.N.aren fotokopia. Sariak oso tentaganiak dira gainera: Irabazleak 60.000 pta, jasoko ditu eta 1. elgoibartarrak, 15.000 pta.

• Elgoibarko Ikastolaren Batzar Nagusia

Elgoibarko Ikastola gestionatzen duen P.M. Urruzuno Kooperatibak urteroko Batzar Nagusia egin zuen joan den maiatzaren 11n. Bertan, 1999. urteko balantzeak eta kontuak, eta 2000. urterako aurrekontu ekonomikoa eta kuota onartu ziren. Zuzendariak plan estrategikoaren garapenaren berri eman zuen eta iaztik hona izan diren aldaketak azaldu zituen: Hala nola, ikasleen zailtasunei erantzuteko eta ahozko euskara bultzatzeko sistemak, 18 urte arte Ikastolan batxilergoa ikasten jarraitzeko aukera, egoera ekonomiko hobea, Ikastolaren Egunaren berrantolaketa eta 3 urteko ikasleen matrikulazioa. Bestalde, bileraren ostean beste batzar bat egin zen eta Ikastolaren izena aurrerantzean "Elgoibarko Ikastola" izatea onartu zuten bertan.

Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 2000. urterako hitzarmena sinatu dute

Udalak 21 315.600 pezetako dirulaguntza emango dio Elkarteari

Orain dela 8 urte Elgoibarko Uarrak Udalaren dirulaguntza ezinbestekoa zela ikusi zuen eta bi erakundeen arteko elkarlana hasi zen 1992an. Udalak ere hasieratik elkartearekiko kontidaraza izan du eta horregatik lagundu du diruz. Kontuan hartzekoa da bai Udala eta baita Elgoibarko Izarra ere, euskararen eta euskal kulturaren alde lanean ari direla. Honetarako hainbat proiektu eta harnaika kultur jarduera jarri dituzte martxan. Elgoibarko Izarra dirua irabazteko asmorik gabeko taldea izanik, egiten duen lanari behar bezalako tratamendua eman behar zaio eta hitzannen honen bidez elkar-tearen geroa ziurtatu nahi da.

D irulaguntzekin hainbat proiektu eta ekintza subentzionatuko ditu Elgoibarko Udalak, baina egitasmoa ez da itxia eta beste jarduera batzuk ere elkarlanean antolatzeke zein diruz la-



Azken zortzi urteotan sinatu dute elkarlanerako hitzarmena.

guntzeko aukera ere izango da.

Elgoibarko Izarratik adierazi digutenez, "guretzat benetan garrantzitsua da 8 urtetan inolako etenik gabe Udalaren dirulaguntza jasotzea. Denok ari gara euskararen alde elkarlanean, guk proiektuak martxan jartzen ditugu eta Udalak diruz laguntzen du".

"Elgoibarko Izarraren eta Udalaren arteko elkarlanaren adierazgarri dira azken urteotan martxan jarritako proiektuak:

BARREN, GUREAN BAI, ARIGERA.. Egi tasmu hauetan sinesten duelako sinatzen du urtero Udalak hitzarmena Elgoibarko Izarrarekin, eta honelako ekin-tzen beharra dagoen bitartean Udalak dirulaguntzak ematen jarraituko du", esan digu Udaleko Euskara Zerbitzuko Arduradunak.

2000ko PROIEKTUAK eta DIRULAGUNTZAK

BARREN astekaria	7 500.000pta.
GUREAN BAI hitzarmena	3 100.000pta.
Aisialdia (Atxutxiamaika)	2.720.600pta.
Kultur jarduerak	2 070.000pta.
ARIGERA	3 800.000pta.
Ikerketak	2 000.000pta.
Bestelakoak	125.000pta.

Eflk greba instituzionala deltu du maiatzaren 24rako

EH alderdiak, LABekin, Amnistiaren Aldeko Batzordearekin, HAIKA Gazte Taldearekin eta Senideak taldearekin batera euskal presoan aldeko ekimen eta mobilizazioak deitu ditu gaurtik hasita datorren maiatzaren 27ra arte. Maiatzaren 24rako, hain zuzen ere, greba instituzionala deitu du eta EHk Elgoibarko Udaleko Gobernu Batzordean proposamena aurkeztu arren EAJk deialdia ez duela jarraituko adierazi du. EHren nahia kargu publikoek Udalean egun osoko greba egitea zen, baita Udalak arratsaldeko enkarteladarako deia herritarrei luzatzea ere, baina ez da horrela izan. Dena den EHk grebarekin aurrera jarraituko du eta egun horretan Udaleko bilerarik egonez gero ez da azalduko.


Udalak hartu du lldiarter industrigunearen ardura

Piskanaka beste industrialdeen mantenimendu lanak egin nahi ditu

Hemendik aurrera Elgoibarko Udala arduratuko da 'Ibaitarte' gune industrialaren inguruak zaintzeaz. Orain arte no industrialala pribatua zen eta sarritan ez zuen inork zaintzen. Beraz, egoera horri aurre egiteko, hermendik aurrera Udaleko langileek zainduko dituzte lorategiak eta beraiek arduratuko dira argieztan eta baita garbiketaz ere. Honen helburua industrialdeak itxura hobea izatea da.

Gaur arte Ibaitarteko' enpresen aldameneko horma batean zulo bat zegoen eta LKS enpresak horri buruzko azterketa bat egin ostean, zuloa gehiago ez dela zabalduko esan du. Beraz, hori konpondu ostean Udalak hartuko du poligono industrialaren ardura.

1999an Olasoko industrialdearen ardura hartu zuen Udalak, eta piskanaka gaintzeko gune industrialak zaintzeko lana bere gain hartu nahi du. Arriagan 'Dano-



Industriguneko argiak, garbiketa eta lorategiak zainduko dituzte, besteak beste.

barek zenbait aldaketa egin behar dituzte, zain egon beharko dira. Lerunen, berriaz, 2000. urteko urrian bukatuko dituzte urbanizazio lanak eta orduan ikusiko dute zein den egoera.

Honela, industriguneak publiko egin nahi dituzte eta orain arte ez bezala, Udalak bide eta aparkaleku gehiago izango ditu eta herritarrek aisialdirako lekua izango dute asteburuetan bertan ibiltzeko.



H

ilabete honetako erretratu zaharra Santa Ana jaietan ateratakoa da, orain dela 40 urte, gutxi gorabehera. Garagartzako "Gartzia" neko zubian atera zuten eta bertatik "Kilimoi" erreka pasatzen zen. Beheko partean "Gartzia" neko taberna zegoen. Argazkian, garai hartan dantza taldean aritzen ziren gaztetxoak agertzen dira beste hainbat herritar inguruan dituztela. Guk dantza taldekoen izenak zein diren jakin dugu.

Zutik, ezkerretik eskurnara: Martin Urain, Domingo Ulazia, Jose Ignacio Zulaika, Jose M.

Arrizabalaga. Jose M. Zelaia, Antonio Iriondo, J. Ignacio Landa, Ignacio Garate, Bixente, Anton Piñel, J. Luis Sanz, Agustin Berasaluze, Agustin Lazarobaster, Gregorio Vives eta J. Angel Andonegi.

Azpiko neskak: M. Dolores Zezeaga, M. Angeles Urain, M. Jesus Azpiazu, Maribel Lazarobaster, M. Pilar Garate, Ana M. Zabaleta, Inaxi Iriondo, Belen Ansola, Juanita Ulazia, Margari Lazkano, M. Paz Berasaluze eta M. Kontxi Lazarobaster.

Irinitate jaiak

Ezagunak dira Trinitateak, batez ere mendarozabaltarrentzat.

Aurten ere, ohitura zaharrei jarraiki bertsolari gazteak, txakolina, baselizako meza eta denak presente izango dira. 2000.

urtekoak ohi baino beranduago datoz ordea;

Ekainaren 18an izango da ospakizun nagusia eta hurrengo egunean, astelehenetan, Trinitate Txiki Eguna.

SANTA TRINITATE ERMITA

1 105. urtean agertzen da lehenengo aldiz ermita honen izena dokumentu batzutan. Ikuspen handiko toki batean agertzen da eta oso handia denez gero, eliza dirudi ermita baino gehiago. Histariagileen hipotesiek ermita hau hailarako eliza izan zitekeela diote.

Baselizaren lehen aipamena dakarkiguten dokumentuak, Baionako eta Iruñeko apezpikutegien arteko mugak finkatzeko asmoz Pascual VI.ak eman zuen bulatik datoz. Bertan 'Sanetan Trianam' eliza aipatzen da. (Trinitate ermita= Sanetan Trianam). Jakitunen ustez arkeologi indusketa beharrezkoa da, Trinitate ermitaren azpian 'Sanetan Trianam' izeneko eliza egon baitaiteke.

Gure arbasoek ziotenez, elizarik zaharreneetakoa zen berau. Izan ere, garai hartan Zenarruzaraino joan beharra zegoen beste bat topatzeko. Ahoz aho jaso diren esamesen arabera, Garagartzako aintzinako parrokia izan zen ermita hau. Zaharrenek Markinatik ere ermita hau bisitatzera etorri ohi zirela diote, lehen esan bevala ez baitzegoen beste elizarik inguruan. Zenarruzakoa izan ezik (Zenarruza Markinatik aurrera, Bolibar inguruan dago). Gaur egun bezala Trinitate Egunean meza izaten zen eta erromeria ere ezaguna omen zen Debabarreneko jendearentzat.

Tamalez ermitak dituen osagaiek aro modernoan kokatzera behartzen gaituzte; IX-XIII mende artean sortua izatea posible bada ere, egun duen itxura XVII. mendeari dagokio. Sarrerako bataiarrietako batean gorde den idatziak hala dio.

Izan ere, 1663an berriro zuten auzolanean hartutako ekimenez. Oraindik ere nabarmentzen da ermita harri ezberdinez eraikia dagoela alde banatara. Orain dela denbora oso gutxi berriz ere egin dituzte berrikuntza lanak eta orain oso itxura polita du. Elizak ezezik baita inguruak ere.



Orain dela urtebete inguru bigarren ala Trinitateko erndtak hor

HARRIZULATZAILEAK

1978k. Trinitate eguneko argazki eta idatzi batzuk topatu ditugu. Haiak beffeskuratu nahi izan ditugu eta baita egun hartako berezitasun bat ere. Mende hasierako harrizulatzailen erakustaldi bat egon baitzen orduan.

Zer dira harrizulatzailak edo zulogileak? Mende honen hasierako jendeak ondo erantzungo lioke galdera honi. Lanik gogorrenak (sega, arrauna, aizkora) kirol bihurtu dira euskaldunentzat. Iraganean, laladradora'rik ez zegoenean beso-kolpez egin behar izaten zituzten zuloak harrietan harrobiko langileek. Zuloak bertan lehergailuak sartzeko izan ohi ziren; kolpeka-kolpeka harria zulatzea kirol bihurtu zen.

Harria zulatzen zuen palankak 4-5 kilo pisatzen zituen; bi aldeetatik erabilgarria zenak 1'5m izaten omen zituen luzeran. Behatz baten lodiko zuloak irekitzen ziren hauen bidez, 80 zm. sakonduz dinamita sartzeko. Hargintzako lana kirol bihurtu zen, beraz.

Kirol honetan ere baziren fenomenoak. Men-


MENDARON



*z berritz ostean elako itxura du.



1978. urteko Trinitate jaietako argazkia da honako hau. Ikusleen artean gaur egungo alkatea eta Kilinzon taldeko entrenatzailea agertzen dira.



Argazkian ikusten den bezala, hartijasotzailea gogor dabil Kortaberriren animoekin

de hasieran aipatzekoa izan zen Debako 'Lojaberri' (Pedro Etxeberria). Gizon honen jarduna Deban, Markinan, Berritxun, Itziarren, Mendaron, Elorrion... ezaguna egin zen.

Historiako harrizulatzailerik onenak 'Elorrio' eta 'Baraiko' izan ziren eta elkarren aurka jokaturako proba batean ha maika oin eta Erdiko zuloa egin zuen bigarrenak ordubetea, hiru metro ingurukoa, alegia.

Normalean Kare harrian egiten zen zuloa. Bizkaitarrak indartsuak omen ziren, gipuzkoarrak, berriz, teknika finagoa zeukaten. Harrizulatzailerik laguntzaileak izaten zizuten ondoan, ur eta olioazko nahastura batez zuloa lubrikatzen zutenak. Beste lagun batek probaren momentu bakoitzean palankarik egokiena aukeratzen zuen Iciolariarentzat.

Harrizulatzailerik azken apustua 1933an egin zen. Argazkia erakustaldi batekoa da, ahaztutako ohitura berres-

kuratu nahian antolatu zuten 1978ko Trinitate jaietarako.

Erakustaldian Benantzio Muguruza, Juan Carlos Urbizu, Domingo Elorza eta Ignacio Iriondo aritu ziren zulketan. Palanka ahal zuten bezain beste altxatuaz beti leku berean jotzen zuten behin eta berri. Txinparta eta hauts ugari izan zen egun hartan.

Victorio Garate izan zen, Guruzperen

Historiako harrizulatzailerik onenek elkarren aurka jokaturako proba batean hiru metro inguruko zuloa egin zuen beraietako batek ordubetea.

bitartez, kirola egun hartan berpizteko lanean ibili zena. Hemen jaso nahi izan ditugu kirol honi zion mirespena adierazteko erabili zituen hitzak: "Pultsua eta indarra dira beharrezkoak... geroz eta gehiago altxatu, orduan eta zailago da azertatzea".

Harrizulatzailerik ezek, baditugu egun hartako beste erretratu batzuk ere. Kortaberriren animoekin harrijasotzailea gogor dabilen argazkian adibidez, jendeari erreparatu gero, makina bat urte barka geniezaizkioke zenbaiti. Hor agertzen diren batzuk ezagunak dira gaur egun herrian. Alkatea eta Kilimoiko entrenatzailea agertzen dira bertan beste batzuen artean. Ea topatzen dituzuen, ordutik hona bizkarreratutako urteak topatuko ez badituzue ere.

Aurten Trinitateak berandua go izan arren ea animatzen garen mendarotarrak. Eguerdiko txakolina gaueko erromeriara bitartean eusteko lagungarri izango zaigu.

Animoak astelehenean meza ostean arituko diren bertsolari gazteei; zain ditzatela hauspoak, eta kantua astelehene buruzuria jai egun bihur dezala. Alaitu bada denak eta gauean trikitiarekin dantza egin .

• **Bertso Eskolakoak Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan**

Joan zen ostiralean, maiatzaren 12an, Bertso Eskolako 12 gaztetxo Getarian izan ziren Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketan. Bat batean aritzeko oraindik goizegi izaki, bertso paperetan erakutsi zituzten beraien abileziak. Gaitzat patrikako telefonoa, etxean bakarrik gertzea eta gidatzeko karneta izan zituzten. Ea norbaitek Azpeitiko finalean sariren bat jasotzen duen. Bestalde, datorren urterako lantalde bat osatu nahian, Mendaroko bertsozaleei eskola orduetan eta bertsozalearen inguruko ekimenetan parte hartzeko deia luzatu nahi diete Bertso Eskolakoek. Animatzen direnak Bertso Eskolako ardura-dunarekin jarri beharko dira harremanetan.
(Tel. 943 75 62 09 Alain)

• **Alboka" taldearen kontzertua maiatzaren 27an**

Euskal Bizikletaren jardunaldiari musika giroko amaiera polita emateko 'Alboka' taldeak kontzertua eskainiko du frontoian datorren larunbatean, maiatzaren 27an. Gauza jakina da 'Artañola' bibolinjole mendarotanak talde honi egiten dizkion ekarpenak. Maila honeko musikariek eta kantuekin gozatu nahi dutenek, beraz, zita datorren larunbatean, gaueko 23:00etan Goñati Pilotalekuan.

Euskall

Maiatzaren 27an, Iarun hatean, Mendaron egingo da aurtengo Euskal Bizikletaren jardunaldietako bat. Bi etapa izango dira: Goizean Bilbotik datozen txirrindulariek Mendaron izango dute helmuga eta arratsaldean Mendaron hasi eta bertan bukatuko den erlojupeko proba egin beharko dute. Lasterketa hau dela eta, Udalak honako ohar hauek jakitera eman nahi ditu:

- Udaletxe aurrea, Kilimon hiribidea eta Herriko enparantza libre egon beharko dira bezperatik.
- Azpilgoeta kalea larunbatean libratu beharko da.
- Herritarrei Ospasen, industrialdean, ospitalean eta Garagartzan aparkatzea gomendatzen zaie.
- Larunbat arratsaldeko erlojupeko proba dela-eta Debarako errepidea itxita egongo da eta, Elgoibarrera doana, berriz, mugatuta.

2000 Mendaren



- Zaletuei karrera ikustera joateko zerbitzu publikoak erabiltzea eskatzen zaie, San Antolinetik etengabe aterako dira autobusak.

Bolondresak

Antolatzaileek Euskal Bizikletan laguntzeko 70 pertsona behar dituztela adierazi dute. Hilaren 22an, astelehenean, bilera egingo dute arratsaldeko 19:30ean Kultur Etxean, eta laguntzeko prest daudenei, bertara joateko deia luzatu nahi diete.

Baterar platalarmaren lehenengo konzentrazioa

20 lagun inguru bildu ziren maiatzaren 6an udaletxe aurrean euskal presoek herriratzea aldarrikatzeko eta beraien egoera salatzeko. Hil bakoitzeko Iehenengo larunbatean egingo dira konzentrazioak Mendaron, eta hurrengoak ekainaren 3an izango da.

Bestalde, uztailean, 'Senideak'ek antolatutako presoek aldeko lasterketa

ko martxa Mendarotik pasatuko da eta herriko elkarteei testigua eramateko deia luzatu nahi zaie.

Jokin gose greban


Bide batez, mendarotarrei jakinarazi nahi zaie maiatzaren 6tik Jokin Urain gose greban dagoela Dueñasko kartzelan. Guztira, beraz, 2 asteko baraualdia egingo du 'Alkorta'k.



Tabakoa, plazerraren ala gaitzaren eragile?

Gero eta arinago hasi ohi dira gaztetxoak erretzen eta horrek guraso asko kezkatu ohi ditu. Batzuk zigarro paketea erosi eta leku izkuturen batera joaten dira beraien lehen kaladak ematera. Guk bi gazterekin hitz egin dugu zigarroak plazerra ala gaitza sortzen duen jakiteko. Tabako gorriaren aurpegi beltza edo beltzaren alde zuria erakutsiko digute gazte hauek. Bat erretzailea da, bestea, ordea, muzin egiten dio tabakoari.

- Erretzailea al zara?
- Zergatik erretzen duzu? edo Zergatik ez?
- Inoiz saiatu al zara uzten? edo Inoiz pentsatu al duzu erretzen hastea?
- Leku publikoetan erretzea debekatzen dutenean...
- Erretzea osasunarentzat kaltegarria dela jartzen du tabako paketeetan.



Josu Tapia

16 urte

■ 1. Esan leike baietz. Iazko Debako jaixetan hasi nintzan eta oin jarraitzen dot tabako rubixua erretzen. Hala ere, egunian ez ditzut zigarro asko erretzen. Institutuan ordu tartietan erretzen dot, baina bestela etxian ez eta kalia oso gutxitan.

IE 2. Tontuen moduan hasi nintzan eta oin tentazivagatik erretzen dot, besterik gabe. Ezin da esan arrazoi bat dauanik erretzeko, gustukua dakat eta kitto.

■ 3. Saiatu, saiatu naiz, baina intentau arren ez dot lagatzerik lortu, Hasieran pisakanaka lagatzen jun eta momenlu baten gehixao ez dotela erreko ere esan izan diot nere buruari, baina nahi eta ezinian geratu naiz.

• 4. Oin arte ez dot lekurik topau ezin dotela erre esan diatenik, baina esanez gero errespetau ingo nukc eta zigarrua amatau. Laginak kejatzen dia noizian behin, baina brometan izaten da eta ohitxu ein biharko dia ni erretzen ikustera.

■ 5. Egixa da, baina erretzailok hori irakurri arren ez dogu ezer ere eitzen. Luzera kalte dezake, eta egixa esan nik eurtziari ez diot alde onik ikusten. Baina, behin erretzen hasitxakuan alde txarrak ahaztu eitzen dia. Gainera, etxian ere esaten diate oindikan gaztia naizela eta denboraz naola laga edo erretzen segi erabakitzeko,



Ander Arritokieta

16 urte

III 1. Ez. Ez dot sekula zigarrorik probau. Gainera, lagunak erretzen ikusi arren ez ditz inungo inbidixa edo tentaziorik eman. Dana dala, badao nere lagunek haino gehixao erretzen daban jendia ere.

■ 2. Ondo pasatzeko ez dakat holako gauzen nezesidaderik, eta ez zait iruditzen erre bihar dotenik. Kirolarixa naiz eta batzuk hon'egatik dala uste dute, baina kirolarixa izan ez banintz ere, ez dot uste erreko nukeenik.

■ 3. Oso garbi dakat ez dotela erretzerik nahi, beraz, ez dot sekula erretzen hasiterik pentsau. Uste dot tabakuak ez diala ezer onik emango eta kalte ingo diala. la zigarrorik inoiz probau doten galdetu izan diate eta nik ezetz erantzundakuan harritxu ein dia. Probau gabe ezin da jakin gustauko jatzun edo ez, baina neri pertsona bat erretzen ikusitxa ez dia gauza bera eitzeko gogorik ematen.

E 4. Leku publikuetan erretzian kontraktia naiz ni. Erretzia nahi ez duanak ez dauka zertan bestiek botatako kerik hartu biharrik.

■ 5. Paketietan hori jartzen badu zeozegatik izango da. Nik ez dot erretzen, beraz, horregatik behintzat ez dot osasun arazorik eukiko. Etxian ere badakite ez dotela erretzen eta lagunak zigarruakin ikusi arren nerekin konfiantza dake.





Ancy J

Ana Irae-
01 41 ur-
teko elgoibar-
tarra Iruñeko
Mendillori au-
zoan bizi da.
Bost urte dara-
matza bertan,
"ni etorri ni-
tzanian lauta-
da batian erai-

ki zaben herri bat zan, baina Iruñea geratu gabe hasiz jun da, eta irentsi egin gaitxu". Anak 1981. urtean alde egin zuen Elgoibartik Iruñeara, 23 urte besterik ez zituenean. "Lanbide Heziketa eskolan idazkaria nintzen, ezkondu eta senarrak inguruotan familia zakalako etorri ginar. Nere bi alabak, 13 eta 16 urtekuak hemen jaio dia. Gero, dibortziau ein nintzan eta alabekin bizi naiz. Elgoibarrera bueltatzeko aukeria euki naban, baina Iruñean gustura bizi nintzan, eta geratzia erabaki naban. Gaur egun institutu batian ari naiz idazkari lanetan". Egun erabat nafartuta dagoela esan digu, "hasieran, batez ere, asko akordatzen nintzan Elgoibarren Iaga naban familixiaz. Orain, berriz, ez naiz Elgoibartik kanpo biziko banintz bezela sentitzen. Autobia berriekin ordu eta laurden nahikoa ditut etxekoak ikusteko". Euskara mantentzeko arazorik ez duela izan argitu digu, "etorri nintzanean elgoibartarrez eitzen naban, baina oin alabek batua pegau die eta errezo moldatzen naiz. Eurak San Bartolometara etortzen dianian segitxuan pegatzen jakuez Elgoibarko berbak".

441
=*=

**Illano"r14CPTEili
bidaia agentziak
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Jose Alamino Sala

(1934-1975)



- 1934ko urriaren 11n jaio zen Meffilan. Gaztetako ikasketak Melillako Grupo Garzia Valiño kokilioan egin zituen. 5 anai-anèba izan ziren, bera lehenengoa. Ume sasoiak lagunekin futbolekin eta korrika eginaz pasatu zuen.
- Gazterik sortu zitzaion autoenganako zaletasuna eta bere aita taxista izanik, Josek 15 urterekin aitararen lan berbera egiten zuen askotan, gidatzeko hai-menik gabe.
- Bere hiriburuko ohiturei janaituz lagun artean ibitzen zen enumerian eta karta partidak jolasten. Soldadutz.a Zaragozan egin zuen.
- Etxera itzuli eta laster ezkondu zen Melillan, bertako Juana Sanehezekin. Euskal Herrira etortzearekin amets egiten zuen eta baita etorri ere; 1960an Elgoibarrera etorri ziren lehenengo umearekin.
- Jose, Iñaxio Irizarrekin hasi zen taxista lanean. Gero Mendaroko Auzategiko Plazara joan ziren, eta Jose 'Lagun' lantegira aldatu zen. Makinetan lan egin zuen, baina gidari bezala aritu zen denbora luzean.
- Berriz lana aldatu eta Soraluzean aritu zen him hat urtez butanero lanak egiten. Tartean, familia Mendaroko Azpilgoetara aldatu zen. Azkenik berriz itzuli zen 'Lagun'era txofer gisa lan egitera.
- 7 seme-alaba eduki zituen, Iehenengoa izan ezik beste guztiak hemen jaioak: Mari Karmen, Juan, Jose Mari, Mari Kontxi, Julian(t), Rosa eta Arnaia.
- Jose ongi bizi izan zen hemen. Alaia, sinpatikoa, lagun artekoa, familiakoa eta sinesmenekoa zen. Gogokoak zituen ehiza, arrantza, mendia eta karta jokoa.
- Gaixotasunak jota amaitu zuen. Familiakoak, artean ere gazteak zirela, Elgoibarrera etorri ziren. Emazteak, Juanak, zerbitzu lan asko eginaz, aurrera ateratu zituen denak. Gaur egun ezagunak dira herrian.
- Jose, gazte hil zen 1975eko uztañaren 26an, 41 urterekin.

Juanito Gorostiza

7.000

PAISOKO

Neska
eta
mutil
gazteentzako
oinetakoa

Zapata denda
berria!

San Frantzisko, 20

4.000

656500

ANTURAK

**PEDRO PEREZ
BERISTAIN**

KOMUNITATEAK eta
FATXADAK - BERRIZTATZEAK
PINTAKETA

San Roke, 30 behea.
s. 943 74 36 52 - 74 27 89



A

ste honetako erretratu zaharra **Jesus Ma Agirrebeñak** ekarri digu. San Lorentzoko Eskolaren kanpoaldean, gaur egun elkarte dagoen lekuan, atera zuten argazki hau 1963-64 ikasturtean. Adin desberdinetako haurrak agertzen dira bertan, 1952 eta 1958

bitartean jaiotakoak, garai hartan 12 urtera arte eskola honetara joaten baitziren, gero, Mekanikara aldatzeko. Abarka eta guzti, dotore asko joan ohi ziren garai hartan eskolara. Jesus Marik beraien izenak ere eman dizkigu. Honako hauek dira:

Goian, zutik, ezkerretik eskuinera: **Jose Mn Leiaristi, Luis Ma Leiaristi, Julian Juaristi, Angel Orbea (t), Jose Bollar, Javier Arrizabalaga (t), Jose Aldazabal, Doña Julia (andereñoa), Gloria Bollar, Elena Aizpurua, Miren Lore Zubizarreta, Jesus Bollar, Braulia Moreno eta Beñoña Bollar.**

Behean: **Juan Luis Badiola, Pepe Moreno, Antonio Moreno, Jose Mn Zubiaurre, Sabin Bollar, Javier Gabilondo, Angel Zubizarreta, Javier Etxaniz, Juan Ma Garitagoitia eta Jesus Ma Agirrebeñia.**

Lurrean eserita: **Sabino Bollar eta Alberto Zubizarreta (t).**



"Kanariarrak beste maila batian daoz, merezitxa irabazi dabe"



Erika Etxabe

- **Adina:** 17 urte.
- **Gustuko beste kirolik:** Patinatzia gustatzen jata.
- **Zaletasunik:** Era gustixetako musikia gustatzen jata.
- **Kolore bat atezain jantzirako?** Horixa. Kontrarixua despistatzeko kolore bizixak hobe diala esaten dabe batzuk.
- **Zein da atezain batentzat gelditzeko jaurtiketa zailena?** Botiakin datozen baloiak.
- **Eskubaloit talde bat?** Bidasoa.

• Zikloturisten irteera maiatzaren 21ean

Elgoibarko 'Lagun' Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 21ean, izango da 20. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirindulariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Antzuola, Deskarga, Zumarraga, Ormaiztegi, Salvatore, Mandubia gaina, Nuarbe, Beizama, Bidania, Errezil, Azpeitia, Zestoa, Iraeta, Arroa, Itziar, Deba eta Elgoibar. Ibilbide motza: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Antzuola, Deskarga, Zumarraga, Ormaiztegi, Salvatore, Mandubiako gaina, Nuarbe, Azpeitia, Zestoa, Arroa, Itziar, Deba eta Elgoibar.

- **Espainiako Eskubaloit Txapelketan 5. egin duzue. Zer moduzko txapelketa izan da?** -Espainiako Txapelketa jokatzera ailegatiakin nahikua egin dou. Lagun talde bat gera, eta lobby moduan jokatzeko dou eskubaloian. Gai nontzeko taldiek serixuoa hartzen dabela uste dot. Guk baino askoz gehixo entrenatzen dabe.

- **Gol baten gorabehera izan zenuen finalerdietarako sailkapena, ezta?** Bai, nahiko suerte txana euki dou eta penetan geratu gera. Lehenengo partidua galdu ostian, bigarrena 3 gol baino gehixoko aldiakin irabazi bihar gendun finalerdietara sailkatzeko, baina bi goleko aldiakin bakarrik irabazi gendun. Gero Balentzianuek Madridentzera irabaztia zan gure aukera bakarra, baina galdu egin zaben.

- **Balentzietrek zeukaten dena eman al zuten Leganeseko kontrako partiduan?** -Hurrengo egunian, finalerdietan jokatu zaben partidua ona ikusi ondoren, gure dudak ditxugu. Dana dala, gure eskuetan euki gendun finalerdietarako sailkapena.

- **Nolako esperientzia izan da azken fasea herritarren aurkeztutako jokatzeko?** -Jende ezagun asko zauden gradetan, eta kanpua izango balitz baino urdurixoa jokatu dou. Hala ere, oso gustura gaude jendian erantzunakin, izugarri eskeritzen ditxugu euren animuak. Jende

rnordua jun da partiduetara eta asko, gainera, normalian juten ez dianak.

- **Zer moduzkoa iruditu zaizu gainontzeko 5 taldeek erakutsi duten joko maila?** -Kanariarrak beste maila batian daoz bestiekin konparatu, askoz gorao. Merezitxa irabazi dabe. Fuengirola eta Leganeseko taldiek, berriz, ez jatazen onegixak iruditu. Beste hirurok antzerako maila erakutsi dou.

- **Egon al da atentzioa deitu dizun jokatzeko modurik edo jokalaririk?** -Kanariasekuek oso ondo menperatzen zaben kontratakia. Banan banan hartuta ere jokalarit aipagarri bat baino gehixoa zauden, teknika ona eta indar asko zauden. Igartzen zan pesak eitxen ditxuela edo ondo preparatu daozela behintzat.

- **'Unceta'ko jokalaririk onenaren saria eman dizute, gustura egongo zara, ezta?** -Bai, normalian jokalaritxerit ematen jakue sarit hau, eta porteria izanik gustura hartu dot. Hala ere, bi partidua bakarrik jokatu ditxugu eta gehixoa jokatzeko gogukin geratu gera danok. Denboraldi amaiera oso ona urten jaku eta pena bat izan da onenian gaozenian amaitxu biharra.

- **Asko nekatzen al da ate azpian?** -Bai, jendiek pentsatzen dau portieruok ez doula ezer ere eitxen, baina tensivan eoten gera eta asko nekatzen dau horrek, etxera oso kantsautu ailegatzen naiz.

• Kirol arloko materialak euskaraz sortzeko bekaren X. edizioa zabandu da

Kirol arloko euskarazko materialen (11-txa didaktikoak, agiriak eta abar) eskasia dela-eta, Deba Ballarako Udalek martxan jarritako "Kirola Euskaraz" planaren barruan, oinarritako kirol materialak euskaraz sortzeko beka argitaratzen dute urtero. Honako hauek dira bekaren ezaugarriak: helburua aerohikeko eta prestakuntza fisikoko fitxa didaktikoak sortzea da. Bi beka izango dira, bakoitzak 400.000 pta.ko ordainsaria izango du. Lana egiteko epea, beka izendatzen den egunetik hasita 5 hilabetekoa izango da. Interesatuek Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza, 20570 Bergara) bidali beharko dituzte eskabideak.

• IX. Lagunak Pilota Txapelketa martxan da

'Lagunak' Pilota Eskolako urtero antolatzen duen Pilota Txapelketa martxan da jadanik eta San Juan bezperara arte, ekainaren 23a, jokatuko dituzte partidua. 60 pilotari inguruk eman dute izena, eta lau mailatan banatuta daude: benjamin mutilak, alebin mutilak, alebin neskek eta kadete mutilak. Partidua Plaza Handiko frontoian jokatuko dira asteazken eta ostiral arratsaldero. Beraz, pilotari gaztetxoak ikusiz gozatu nahi duenak aukera polita du.

"Ro/ Casa Remudas" kanariar taldeak nagusitasun osoz irabazi du Espahlako Eskubaid Txapelkete

Unceta Elgolbar taldea 5. postuan sailkatu da

Plaza den domekan, hilaren 12an, jokatu zen Kiroldegian Espainiako Eskubaloi Txapelketako finala. Final handia bi faborito nagusiek jokatu zuten, hau da, "Ro' Casa Remudas" Kanariar Irletako taldeak eta "Alsa Eida" balentziarrek. Finalean ere ez zen sorpresa izan. Txapelketan erakutsitako ildo beretik, kanariarrek goitik behera menderatu zituzten balentziarrak, azken emaitza dugu horren lekuko 35 eta 13. alegia. Aipagarria da atsedendian 21 eta 4 zela emaitza kanariarren alde. Sailkapeneko hirugarren postua ermuarentzat izan zen, "Juventud Leganes" talde madrildarrari 20 eta 13 irabazi ostean. Beste bi sari ere irabazi zituzten ermuarrek. Matxalen Ziarsolo aukeratu zuten txapelketako jokalaririk onena, eta Esther Larreategik, berriz, golegile onenari ematen zaion garaikurra eskuratu zuen.

Zorte txarra elgoibartarrek

Elgoibartan ei dagokienez, "Unceta Elgolbar" taldea finalerdietara sailkatzeko zorian egon zen, baina helburua lortzeko gol bat falta izan zuen. Izan ere, le-



"Ro' Casa Remudas" taldeak jokatu dituen partidu guztiak irabazi ditu joku erakustaldi bikaina eginez.


hen partidua galdu ostean, bigarrena bi goletako aldeaz irabazi zuten, baina ez zen nahikoa izan, 3 goletako alde behar baitzuten. Azkenean 5. postuarekin konformatu behar izan dute. Txapelketak iraun duen 5 egunetan Kiroldegia jendez gainezka egon da eta puntako eskubaloia ikusteko aukera izan dute guztiak.

Bestalde, IMH senior mutilen taldeak partidua erabakiorra jokatu du zapatuan, hilak 20, Kiroldegian. Basauri taldearen aurkako partidua irabaziz gero, mailaz igotzea lortuko dute-eta.

Elgoibarko Mendi Kadia denlekan, hilaren 21ean kango da Bi ibilbide izango dira aukeran, bata luzea eta bestea motza

Morkaiko Mendizale Elkarteak Elgoibarko Mendi Itzulia antolatu du urtero bezala. Aurten, maiatzaren 21ean, domekan, izango da Elgoibarko mendietan zehar egiten den mendi buelta. Aurreko bi urteetan gertatu zen moduan, bi ibilbide desberdin egiteko aukera izango dute partehartzaileek: ohizko ibilbidea bata, eta orain dela 60 urte egiten den itzuli luzeagoa bestea. Ibilbide luzeena aukeratzen dutenek, taldean joan beharko dute eta ibilbide luzea aukeratu dutela antolatzaileei jakinaraztea eskatzen zaie. Irteera goizeko 6:30ean izango da Morkaiko'ren egoitzatik (Errosario kalea).

Izen-ematea, elkartera aurrez deituz (Tel. 943 74 02 97) edo irteera unean bertan egin daiteke. Itzulia amaitu ondoren, Morkaiko Mendizale Elkarteko kideek otordua eskainiko diete mendizale guztiei Merkatu Plazako azken solairuan.



Goizeko 6:30ean irtengo dira partehartzaileak Morkaikoren egoitzatik.

EMAITZ	
Futbola	
Elgoibar 3- La Salle 0 (2. kad.)	
Eskubaloia	
Bergara 5- Pagoaga Elg. 28 (Kad. nes.)	
Aiala Zarau 119- I.M.S. Elg 15 (Senior nes.)	
IMH Elg. 26- Barakaldo UPV 24 (Senior mut.)	
IMH Elg. 25 - Laudio B.C. 4 (Senior mut.)	
Esku pilota	
Lagunak Pilola Txapelketa	
Etzaniz 18 - Mendibil 5 (Benj.)	
P.Larrea 18 - Salazar 4 (Benj.)	
Garate 18 - Moreno 8 (Aleb.)	
A. Larrea 18 - Arrizabalaga 8 (Aleb.)	
Idarraga Kafeak 3. saria	
HAUNDIko jokalaririk erregularrena 99/00	
JOKALARIA	PUNTUA
1- Loren	35
2- Aranberri	33
3- Castro	29
4- Zulaika	28
5- Ibarluzea	27
6- Gaslillo	26
7- Alberdi	23
8- Baque	22
9- Polo	21
10- J. Leonardo	17
11- Bravo	16
12- Diaz	15
13- Caro	14
14- Mikel ...	12
15- Ruiz	8
16- Guarrobrena	6
17- Manolo Ramos	4
18- Alkorta	4
19-Txasio	4
20- Edu	4
21- Fernandez	2
AGENDA	
Eskubaloia, Kiroldegian	
Larunbata, 20	
16:00 Gaur Elg. - Bergara (Kad. mut.)	
17:30 IMS Elg. - Bera Bera (Sen. nes.)	
19:15 IMH Elg. - Basauri (Sen. mut.)	
Futbola, Mintxetan	
Larunbata, 20	
17:30 Pedrusko. - Gazteak (1 erreg.)	

[t]O LE TXE TA5ERNA

redro Muguruza 8, behean
Tel. 943 74 19 48

maiatzak 19,
izakua

23:00

AMAIA ZUBIRIA

KULTUR ERROTA

Antolatzailea:
TOPAGUNEA-ELGOIBARKO IZARRA
Euskera Elkarte eta
Herri Aldizkarien Topagunea

maiatzak 21,
domeka

GAU taide e obartarra

"GAU SENTIPENAK"

Jon Eugi: poemak
Alberto Gonzalez: giterra eta pianoa

Antoiatzailea:
URRUZUNO Literatur Taldea

BgeibarkolGaua' taldeak poesia e usEliza sata eskahdko du hilaren 21ean y deme un, blllelxen Gauaren alde ezberdinak erakusten ditu emanaldiak

Jon Eugi Urruzuno Literatur Taldeko kideak, eta Alberto Gonzalez "Uler 600" musika taldeko gitarrajoleak osatzen dute 'Gaua' taldea. Datorren domekan, hilaren 21ean, izango da bikotearen estreinako saioa Toletxe tabernan. Bertan, 'Gau sentipenak' izeneko emanaldia eskainiko dute. Poesia eta musika uztartzen dituen saioak, gauaren alde ezberdinak erakusten ditu.



Jon Eugi (ezkerrean) eta Alberto Gonzalez elgoibartarrek osatzen dute 'Gaua' taldea.

Jon Eugi azaldu digunez, iaz sortu zitzaizen taldea osatzeko ideia, "Albertokin berbetan hasi nintzan behin, eta musikia zakala konposata esan zian. Nik, berriz, poema batzuk idatzita nakazela esan nion eta bakoitzak bestian lana ikusi ostian, musika eta poesia batzen ditxun saio bat eitzeko aukeria zauala ikusi gendun. Nere poema batzuk gauari buruzkuak zianez, gaua gai nagusitzat hartuz montaje bat prestatzen hasi ginan. 'Gau sentipenak' izeneko saioa izan da gure elkarlanen fruitua". Gaueko

22:00etatik aurrera gauak sortarazten dituen sentsazio ezberdinak poematurik azalduko ditu bikote honek. Ikusleek saio txukun bat ikusi eta une atsegin bat pasa dezatela da beraien asmo nagusia, "badakigu poesiak ez dabala jende asko erakaritzen, baina juten dianak gustura lagatzia da gure asmua. Oso poesia zaliak ez dianek ere, gitarra eta piano doinuekin gozatzeko aukeria izango dabe". Azkenik, ahalik eta emanaldi gehien ematea gustatuko litzaiekeela azaldu digute, hau hasiera besterik ez baita.

ETB1 ekolBarrebusal saioa hilaren 22an eta 23an Herrifilte Antzokian grabatuke dute

Umeez ezezik, gurasoek ere partehartze zuzena dute

ETB I ean larunbatero eskaintzen den 'B arrebusa' saioa Herriko Antzokira iritsiko da maiatzaren 22an, astelehena, eta 23an, astearte, iluntzeko 19:00etan. Herriko herri dabilen ikuskitzuna ibiltaria da. Umeei (4-11 urte bitartekoak) nahiz gurasoei zuzendua, umorea eta magia biltzen ditu saioak. Aurkezle lanetan Ixiar Oreja ezaguna arituko da Txirri Mirri eta Txirribiton pailazoan laguntzaz. 'Barrebusa' hainbat atalez osatuta dago 'Txan Magoaren magia, pailazoan



Aurkezle lanetan Ixiar Oreja arituko da 'Txirri, Mirri eta Txirribiton' pailazoekin.

abestiak eta esketxak, Elgoibarko artista gazteen aktuzioak, eta 'Guraso oromoa' deitzen den atal bat ere hadago. Bertan, Elgoibarko 3 gurasok 'Hiperguraso' txartela lortzeko ahalegina egingo dute. Haurren munduarekin zerikusia duten galderak crantzun beharko dituzte txartel preziatua eskuratzeko. Hauez gain, zozketak eta beste hainbat sorpresa izango dira. Sarrera guztiak aurrez salduko dira Kultur Etxean.

AIV1A1A ZUBIRIA

"Musika tradizionalen espezializata unrrin naiz"



Amaia Zubiria sarritan izan da Elgoibarren eta gaur, ostirala, maiatzak 19 ere kantaldia eskainiko du Kultur Errota egitasmoaren baitan, Toletxe tabernan. Kantu tradizionalak zein berriak abestu ohi ditu orain dela 23 urtetik kantagintza lanbide izan duen emakume honek. Bere abestiekin gozatu aurretik hizketalditxoak izan dugu Amaiarekin kantagintzaren nondik norakoak jakiteko.

|| Nondik datorkizu kantagintzarako zaletasuna?

Auskalo. Nire amak eta aitak asko kantatzen zutelako izango da seguraski, baita beti oso ongi kantatzen dudala esan izan dicitelako ere. Oso gaztetatik normalizat eman izan dut kantatzea.

E Noiz hasi zinen jendaurrean kantatzen?

Lehiaketetan, 16 urterekin. Lehen asko antolatzen ziren, eta denak erdaraz izan arren, aurkeztu egin ohi nintzen. Ondoren ezkondu eta 10 urte pasa nituen ezkondu-ta, umeak hazten... Gero banatu egin nintzen eta kantagintzan profesionalki orduan hasi nintzen.

|| Taldean edo binaka ariztetik bakarka kantatzera pasatzen zinen.

Bakarrik ez dut sekula kantatzen. Beti ere dependentzia bat dago, batez ere nik ez dudalako instrumenturik jotzen, eta gainera talde lana gustuko dudalako. Hala ere, nire izenarekin abesten dut orain. Behar hori sentitu nuen, nire gauzak esateko gogoia neukan eta nire kantak egiten hasi nintzen.

E Zure izenarekin hiru disko egin dituzue jadanik.

Pascal Gaignerekin nengoenean ere nik bakarrik kantatzen nuen, beraz, bakar-kako disko gehiago dauzkat. Denera 11 disko kaleratu ditut: 2 'Haizea' taldearekin, 3 Txomin Artolarekin, beste 3 Pascal Gaignerekin eta gainontzeko 3ak nire izenarekin ateratakoak. Kolaborazioak ere asko egin izan ditut.

1 Aurrera begira proiektu berezirik ba al duzu?

Nire proiektua bizitzea da. Beti kantatzen eta kantuak egiten ibiltzea. Ez nago marketinean sartuta, beraz, ez ditut trukoak asmatzen. Azken urteetan letrak eta musika egin

izan ditut eta ahal dudanean disko bat kaleratuko dut. Hala ere, nik kantu tradizionalak kantatzen ditut. Hori ikasi dut txikitatik eta izugarri gustatzen zait, ez nuke hori utzi nahi.

"Nire proiektua bizitzea da. Beti kantatzen eta kantuak egiten ibiltzea. Ez nago marketinean sartuta, beraz, ez ditut trukoak asmatzen".

|| Zein estilo jorratzen duzu?

Gauza ezberdin gehiegi egiten ditudala esaten didate, ez naizela beti ildo bereetik joaten, alegia. Baina hori niretzat zorte bat da, erregistro asko ditut eta denetan ibiltzea gustatzen zait. Musika tradizionalen espezializatua sentitzen naiz. Hau egiteko momentuan melodiari garrantzia ematen diot, baina batez ere testuan kokatzen naiz. Agian beste musika bat entzuten duenari dena berdina dela irudituko zaio.

|| Nolako da zure publikoa?

Orain dela 20 urte publiko mota bat etortzen zen eta orain askotan beraien seme-alabak etortzen dira, baita beraien ere. Gaurko gazteek musikaren zentzua zabalagoa daukate. Badira obsesiboki gauza bat bakarrik entzuten dutenak. Baina normalean sentsibilitate piska bat daukan gazteak denetik entzuten du, lotsatu aabe eta gustura. Gure kontzertuetara ez dira mila pertsona etortzen, baina etortzen den publikoa oso bariatua da.

Train dela 20 urte publiko mota bat etortzen zen eta orain askotan beraien seme-alabak etortzen dira. Gaurko gazteek musikaren zentzua zabalagoa daukate".

|| Elgoibarko entzuleari zer eskainiko diozu?

Ordubete gozo-gozoa. Zenbait kantu zaharrez gain, 'Mami Xuri' eta 'Amonaren mengantza' diskoetako abestiak kantatuko ditugu. Nahiko kontzertu intimista izango da. Publikoaren aurpegia ikustea eta beraien hitz egitea gustatzen zait. Elgoibarren aurrez sarritan egon izan naiz eta publikoarekin harreman ona izan nuela gogoratzen dut. Jakin badakigu etortzen den jendea gustura aterako dela.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia 943 032610
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740365
 D.Y.A (anbulantzia) 943 464622
 Gurutze Gorria .. 943 743864
 Mendaroko Ospitala.. 943 032800
 Odol Emailak .. 943 743936

GAFIRAIKOAK

Eusko Trenbidea. 943 740442
 PESA (Eabar) . 902 10 12 10
 Taxi geltokla 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
 Udal Knol Patronatua.. 943 744415
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158
 Mendaroko Udala. . 943 756100
 Ongizate zerbitzua ... 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa..... 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kantsumo Bulegoa ... 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola .. 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
 Zaharren Biltokia ... 943 740526

IHASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua
 Arreiturre 943 74 80 19
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
 I kastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco .. 943 74 40 73
 El Correo Español.. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia 943 74 34 74

23 asteartea

18:00 HITZALDI INFORMATIBOA

Gaia: "Loditasuna eta zelulitisa"
 Hizlaria: Mari Sol Saez, dietista
 "Kemen" belardendan

19:00 "BARREBUSA"

`Txirri, Mirri eta Txiribiton'
 pailazoan saioa
 Herriko Antzokian

25 osteguna

21:30 ZINE KLUBA

"Una historia verdadera"

26 ostirala

18:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

"Itzal bat gogoraraziz"
 Argazkilaria:
 Roberto Botija
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Ongarri Argazki Kolektiboa
 Ekainaren 24ra arte

21:30 ZINE KLUBA

"Una historia verdadera"

19 osti rala

22:15 ZINEA

"Huracan Carter"

23:00 AMAIA ZUBIRIAren KANTALDIA

Kultur Errota
 `Toletxe' tabernan

13:00 "ELHEA"

ABESBATZAREN KONTZERTUA

Behe Nafarroako
 Donapaleu herrikoak
 San Bartolome parrokian
 Antolatzailea:
 Itxaropena Abesbatza

19:30-22:15 ZINEA

"Huracan Carter"

22:00 POESIA eta MUSIKA

`Gau sentipenak'
 Taldea: `Gaua'
 Antolatzailea:
 Urruzuno Literatur Taldea
 `Toletxe' tabernan

2 astele ena

19:00 "BARREBUSA"

`Txirri, Mirri eta Txiribiton'
 pailazoan saioa
 Herriko Antzokian

6:30 ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

Irteera Morkaiko M.E.ren
 egoitzatik
 Antolatzailea: Morkaiko M.E.

9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Txankakua zubitik
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Lagun Taldea.

21 igandea

R • RERRRERE ■ ZIRERERRER

11 NE A



Zuzendaria: Norman Jewison.
 Antzezleak: Denzel Washington,
 Vieetous Reon Shannon, Deborah Kara.

Iluracan Carter"

Benetako istorioan oinarritutako pelikula da. Rubin Carter boxeolaria Munduko Txapelketa irabazteko zorian zegoen 1966. urtean, baina bera eta beste gazte bati 3 pertsonaren heriotza leporatu zieten. Errugabeak izan arren betiereko kanzelara zitortu zituzten. Carterrek bere biografia idatzi zuen gantzelan. Amerikar gazte batak liburuairakurri zuen eta Carterren errugabetasunaz konbentzitu, honen askatasuna eskatzeko kanpainan bat hasi zuen.

EUSKAL PRESOEN ALDEKO EKIMENAK eta MOBILIZAZIOAK

MAIATZAK 19, ostirala

20:00 Kontzentrazioa Plazan

MAIATZAK 23, asteartea

Irakaskuntzako greba

Ikasle eta gazteen borroka eguna

21:00 Autokarabana zaratatsua Sigmako zubitik

MAIATZAK 24, asteazkena

Greba instituzionala

19:00 Akanpada Udaletxe azpian gau osorako

MAIATZAK 25, osteguna

7:30 Kartelada Txankakua zubian

12:00 Bi orduko Greba produktiboa. Paroa lantegi, taberna eta dendetan

12:15 Langile eta ordezkarien kontzentrazioak:

- Autopista sarreran
- Leruneko bidegurutzean
- Olasoko sarreran
- Plaza Handian

20:00 Manifestazioa Plaza Handian

MAIATZAK 26, ostirala

Mobilizazio Eguna

20:00 Manifestazioa Plaza Handian

• **Amaia Zubiriaren kantaldia, gaur, hilak 19, 'Teletxe' tabernan**

Gaur, hilak 19, kantaldia eskainiko du Amaia Zubiria Zubietako abeslariak. Saioa gaueko 23:00etan hasiko da 'Toletxe' tabernan. Kultur Errota egitasmoaren barruan kokatzen da emanaldi hau eta denboraldiko lehenengoa izango da.

• **'Ensemble Vocal Elheal' abeshatzaren kontzertua domekan, hilaren 21ean**

Behe Nafarroako Donapaleu herriko 'Ensemble Vocal Elhea' abesbatzak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 21ean, San Bartolome parrokian. Itzaropena' abesbatzak antolatu du kontzertua, eta 'Biardana' Elkartearen 50. urteurrenaren ospakizunen barruan kokatzen da. 'Elhea' taldea Alain Perpetue Saint Palais-eko Musika Eskolako zuzendariak sortu zuen 1988. urtean. Gaur egun 35 koralistaz osatutako talde mistoa da. Errepertorioan euskal abestiak dituzte, batzuk aintzinakoak eta beste batzuk berriagoak. Saioa eguerdiko 13:00etan hasiko da.

• **Haragi gisatu lehiaketa Jubilatuen Bilteklan, ekainaren 9an**

Jubilatuen Biltokiak lehiaketa gastronomikoa antolatu du, haragi gisatu txapelketa, hain zuzen ere. Ekainaren 9an, ostiralean, izango da lehiaketa. Izena emateko jubilatuen zuzendaritzara jo goizeko 10:00etatik 12:00etara.

• **Loditasunari eta zelulitisari buruzko hitzaldia hilaren 23an, asteartean**

'Kemen' belardendak antolatuta, Mari Sol Saez dietistak loditasunari eta zelulitisari buruzko hitzaldi informatiboa eskainiko du asteartean, hilaren 23an. Hitzaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da 'Kemen' belardendan. Joan nahi duten guztiek 943 74 40 31 telefonora deitu aurrez.

751MVAILII

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
20	Yudego	Yudego
21	Yudego	Yudego
22	Zabaleta	Zabaleta
23	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	
24	Escala	Escala
25	Bidasolo	Bidasolo
26	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACIO FERNANDEZ
 Herriko enparaniza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

211 gandea Eizagirre

III ■ la ■ • • 111 ■ • • • 111 IE • 111 • • E1 • • • 11 • • • •

GARRI
 kluba



"Una histeria verdadera"

Alvin Straight Estatu Batuetako baserri-atar agure bat da. Alvinek 10 urte daromatza Wisconsinen bizi den bere anaiarekin hitz egin gabe. Hori dela eta, bere traktore txikia hartu eta Iowatik Wisconsinera dauden 260 kilometroak egitera ausartuko da, anai ikusteko itzaropenarekin. Ameriketako errepide amaigabebetatik hasiko duen bidaiak Alvinen izaera ere aldatuko du, bakardadeak pentsatzeko asti nahikoa eskainiko baitio.

Zuzendaria: David Lynch.
Antzezleak: Richard Farnsworth, Sissy Spacek, Harry Dean Stanton.

• • • • • ffiZ MZE al • • • • III • lrn ■ III

Iana

• ESKAINTZA *

- Neska euskalduna behar da bi ume zaintzeko Eibananir 696 24 70 50 Yolanda
- Pertsona bat behar da taberna batean aarbitzaile lanak egiteko. tr 943 74 43 46
- Neska hat hehar da sukaldean lan egiteko. tr 943 74 34 14
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko. Tr 646 19 76 13
- Neska edo mutila hehar da uztaila-ko aratsaldeetan umeak hondanzara eramateko. Haturrek, 8, 10 eta 12 urte dituzte. tr 943 74 35 09/ 74 31 66
- Esperientziadun ileapaintzalea behar da egun osoz lan egiteko. ir 943 74 00 97
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. 12 630 33 54 48
- Suziedadate garbi(zeko emakumea hehar da. It 943 74 10 03

• ESKAERA •

- Neska esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak eta haturak zaintzeko. 12 610 68 52 95
- Senar emazteak eskaintzen dint sukaldari eta sukaldari laguntzaile bezala. tr 610 68 52 95
- Esperientziadun neska eskaintzen da lanerako, garbiketarako, umeak zaindu eta orokorrean, hostalaritza lanak egiteko. [Cristina](#). tr 943 74 28 69
- Ordenagailuz idatzitako lanak eta enpresatarako piezak egiteko prest nago. Maider a 943 74 16 85
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Orduka lan egiteko. tr 943 74 07 07 (18:00{X}letatik atnera)
- Neska eskaintzen da haurrak z.aintzeko. Te 686 32 02 41

Bestelakoak

- Maiatzaren 5ean, norhaitek plaza-ko atupetan, "game boy" bat aurkitu bazuen, mesedez eraman dezala Udaltzaingora. Eskerrik asko.
- Maiatzaren 6an, larunbatean, bong markako umearen jertse berdea galdu nuen. 943 74 35 09
- Lokal komertziala alokatzen da Elgoibarren. 250 m². Oso egokia almatzen modura erabiltzeko. Prezio ekonomikoa. mr 639 46 96 11 (19:00{X}letatik-21:00elara).
- Neskaz edo mutilez osatutako pisu konpartitu batean logela bila nabil. tr 943 74 31 75 (Gauzez deitu)

Ettebizitak

- Pisu hat alokatuko nuke Elgoibarren. z. 616 63 88 57
- Pisia saldu edo alokatzen dut Torreviejan. 72 943 74 24 26
- Apartamentua dut alokatzeku, ekaina- iraila, 'Levante'ko hondiu⁷tzara ematen du, piszina eta parkina ditu. s 943 74 38 27/943 74 20 31
- Apartamentu bat alokatzen dut Benidormen. v 943 74 06 28
- Etxea salgai Errosariti kaleko 24. zenbakian. 60 In². Guztiz berria. ix 943 74 14 71
- Etxebizitza erosi edo alokatuko nuke Elgoibarren. (12:30etatik-14,00etara deltu). v. 655 70 70 33
- Calpen (Alikanten) pisua alokatzen da ekaina, uztaila eta irailean. (Isabel). w 943 70 07 91
- Pisu txiki bat alokatu nahi nuke. Beste batzukin pisua konpartitzeko ere prest nago. 943 76 19 59 (21:00etatik aurre deitu)
- Gela bat daukat alokatzeko. -21- 943 74 18 81
- Pisua alokatzen da Santa Polan. 3 gela, sukaldea, jantokia eta komuna. Hondartzatik 50 metrota. 15 egunetarako edo hilahete osorako. tr 943 74 08 05 (Rafa)
- Pisua alokatu nahi nuke ekainera-ko, Altzariekin, mr 943 74 82 80 (Edume)

Salerosketak

- Opel Kadett GS 2.1 gorria SS-AH: Itxiera zentralizatua, kristal-jasogailu elektrikoa, konpetizioko esekidura. Egoera onean. n 943 74 21 99/943 74 40 69 Joxean.
- Zaindu ezin dudala eta, samolledo anazako txakur bat oparitzen dut. Cristina a 943 74 28 69.
- Bulegoko altzariak ditut salgai, berri-berriak: bi mahai, hint artxibo, faxetako inakina bat eta bi aukli. 13. 943 75 50 26/656 77 28 80
- Eskiak, botak, bastoiak eta buzoa salgai. 15.000 plair 667991637
- Altzariak salgai: Bikote batentzako egurrezko logela (25.000 pta.). Sukaldeko mahaia. iskina egiten duten banku eta guzti (20,100 pta.) eta butanozko sukaldea (20.000 pta.). 'D 636 31 42 66.
- Euskadi txirindulari lasterketako bizikleta salgai. Ceus Campagnolu Record modelo. 58 neurria. Oso ondo zainduta eta prezio onean. a 943 74 37 75 (Gauzez deitu)
- Yamaha RD-350 salgai. Oso ongi zaindua eta prezio onean. mr 943 74 11 87 (Gauzez deitu)

- Renault 11 salgai. SS-AC. Oso ondo zainduta, gantziarekin eta estrekin. 943 74 11 87 (Gauzez deitu)
- Boxer eta artzai aleman txakurkumeak Pedigreearekin. 696 05 73 46
- Gorpildun autkia erosiko nuke. a 943 74 19 33 (Gauzez deitu)

Garajeak

- Garajea alokatuko nuke Ikastola inguruan. s 943 74 28 24

Agurrak

- Zorionak Ioana Astigarragari, hilaren 12an urteak bete zituelako. Bere kuadrilakoan partez,
- Zorionak Xabi Pertarandari. hila- ren 23an, 15 urte beteko dituelako. Ikastolako DBH 3koen partez.
- Zorionak Ainara Ladronei, hila- ren 24an 16 urte beteko dituelako. Ikastolako DBH gultiarene partez.
- Zorionak igande honetan. hilak 21, urteak beteko dituelako. DBH leko lagtmen partez. Segi horrela Errealean.
- Zorionak Ion Sanchez, hilaren 18an urteak bete zituelako. DBH leko bere lagunen partez eta bereziki, Ana Mariren partez.
- Zorionak Judith Zabalari, hila- ren 21ean 15 urte beteko dituelako. Ikastolako DBH 3ko guztien partez.
- Zorionak Ion Aranzamendiri, hila- ren bukaeran 15 urte beteko dituelako. Ikastolako DBH 3koen partez.
- Zorionak Ainhoa Mendibili, hila- ren 18an urteak bete zituetako. Lararen eta Alazneren partez.
- Zorionak Joshuari, maiatzak 15ean urteak bete zituelako. Bere lehengusina kutzunaren partez.
- Zorionak "super-aita" Benjamin, zure urtebetetzeak izan zirelako. Zer moduz pasatu zenuen egna? Zure alaba Estela eta Julia panpo- xen eta zure emaztearen partez.
- Zorionak Alaitz Garagarzari, hila- ren II an urteak bete zituelako.
- Zorionak Enara Gorostizari, hila- ren 23an 15 urte beteko dituelako. Leireren partez.
- Zorionak Dulantziko Garitagoi- tiatar Oihaneri, hilaren 22an 8 urte beteko dituelako. Elgoibarko famili osoaren partez, bereziki lehengusu Artor eta Igorrek Urasanditik.



• Zorionak Lara Uraini, hilaren 15ean 12 urte bete zituelako. Egun polit hat pasatuko zenuelakoan. Sa- legiko kuadrila.



• Zorionak Sonia Mendozari, hila- ren 19an gaur, 14 urte egin dituelako. Zure mutilaren eta lagunen partez.



• Zorionak Ibai Leoni, maiatzaren 30ean 12 urte be- teko dituelako. Zer uste zenuen, ez nintzela gogo- ratuko. Zein naiz? Ainhoa, Alazne, Leire, Lara... Espero dut asmatzea,



• Zorionak Maria, hila- lak 20, 8 urte be- teko dituzulako. Anaia Andoni ta familia osomen partez.



• Zorionak Jesus Mariri bere urte- betetzean. Emaz- tearen partez, mu- su handi bat,



• Zorionak Sara- ri, igandean, hilak 21, 20 urte beteko dituelako. Arrio- lantn partez.



• Zorionak Unai Arreseri bi urte bete dituelako. Ai- tor, Iiigo, Jon eta Irati.



• Zorionak aita, hilaren 18an 40 urte bete zenitue- lako. Zure alaba Jenniferren partez.



• Zorionak Olatz! Azkenean zu ere poliki-poliki bazo- az zahartzen, eht. Ondo pasa bihar, 22 urte behin ba- kurrik egiten baiti- ra. Zorionak fam- liaren partez,



Uda honetan, *Hyundai* autoak fresko-freskoak aterako ditugu.



ANISA?
29.750
656600

Hyundai-k **aire egokitua**

edo dagokion deskontua **erregalatzen dizu.**



ATOS	1.020.000 pta.tik aurrera	(6.130,32 euro)*
ACCENT	1.356.000 pta.tik aurrera	(8.149,72 euror
LANTRA	1.809.000 pta.tik aurrera	{10.872,31 euro)*
COUPE	2.156.000 pta.tik aurrera	(12.957,82 euror
SONATA	2.885.000 pta.tik aurrera	(17.339,20 euro)*



HYUNDAI

Gidatu marka ona bat

www.hyundai.es



* Panirtsula Bla etaiE2P Irtelean gementlathtaan pratioak. Matrikulaille kudeaketa, Pramarlo Beneraena eta 'Prever Plana' Itarne, Hillaren ankaerararteks eskaintra sturk-ean tiameen hanake modalnetan: Alas, Accent, lantra, Coupe eta Setrata. Buiemaren arreja lelelonua: 902 2411802.


MENDARO AUTOAK: ELGOIBAR TEL. 943 74 32 00 • EIBAR TEL. 943 20 50 00 • IRUN TEL. 943 61 20 00 • DONOSTI TEL. 943 31 22 00
BEASAIN TEL. 943 88 34 00 • AGENTEAK: TOLOSA TEL. 943 67 40 29 • ARRASATE Ta. 943 71 20 02,



ALDIBI AUTOAK, S.A.

hOP;tekar

"NISSAN ALMERA BERRIA. GOZATU IBILBIDEA"



Aldibi

Olaso kalea, 23
OIBAR
Tel.: 943 74 20 37
l'axa: 943 74 35 24

Z arrolzt I
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65